

FACEGUK: EUSKAL IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA SOZIALA

ETNOGRAFIA DIGITALETIK AZTERTUTA

Tesiaren egilea: Koldo Díaz Bizkarguenaga

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Ikus-entzunezko komunikazioa eta publizitatea

Tesi-zuzendaria: Josu Amezaga Albizu

Tesiaren laburpena:

Gaur egungo gizartea ulertu nahi izan da doktorego-tesi honen bidez. Gizarte-eredu Modernoan nagusi ziren dikotomiak eta erakundeen indarra ahuldu direla nabaria da egunerokotasunean. Era berean, subjektu erreflexiboak garrantzia hartu duela eta Informazio eta Komunikaziorako Teknologiak XXI. mendearen hasierako gizarte-harremanetan egonkortu direla baieztatu daiteke. Oro har esanda, azken urteotan hainbat moldaketa jazo dituen gizarteak egoera sozialean eta gizarte-harremanetan aldaketak eragin ditu. Beraz, egungo gizartea ulertu eta deskribatu ahal izateko kontzeptu, metodologia eta ikerketa-galdera berriak behar dira.

Mundu-mailako teoriariek deskribatutako ikerketa-arazo makro horiek Euskal Herrian ere gertatzen dira. Euskal identitatearen gaiari dagokionez, sozialki Herri identitate hau sentitzeko, bizitzeko eta eraikitzeke moduak aldatu dira azken hamarkadetan. Eraikuntza sozial hau deskribatzeko asmoz, ikerketa honetan euskal identitatea soziologikoki aztertzeke erabili beharreko ikerketa-galdera moldatzea proposatu da: ikerketa-ardatza euskal identitatearen eraikuntza izan da («zelan» galderari jarraituz) eta ez definizioa («zer da»). Horrela, identitatea soziologikoki definezina dela defendatzen duten ekarpen teorikoetatik abiatuz, euskal identitatea sozialki definitua dagoen eta soziologikoki definitu ezin daitekeen ikerketa-objektua dela ondorioztatu da.

Hori dela-eta, ikerketan zehar euskal identitatearen eraikuntza sozialaren prozesua izan da aztergai: gizarteak negoziatzen dituen identitate-erreferenteak aztertuz, euskal identitatea sozialki eraikitzeke praktikak eta diskurtsoak ulertu ahal izan dira. Ikerketa honi esker, batetik, euskal akademian orain arte aspektu soziologikotik aztertu ez den ikerketa-espazio baten berri eman ahal izan da: Facebooken azterketaren bidez, Euskal Herriko kasuan Internet eta Interneteko harreman sozialak deskribatzeko aukera eman du ikerketak. Bigarrenik, gazteek Facebooken (bidez) euskal identitatea eraikitzeke dituzten diskurtsoak eta praktikak identifikatuz, erreferente politikoak baino gehiago erreferente sozialak konpartitzea lehenesten dutela ondorioztatu da. Lan honi esker, hirugarrenik, Interneten garaiko euskal komunitatea trazatu da: euskal gizartea, taldetasun-eredu bakar eta koherente batetik, hainbat kolektibitate barnebiltzen dituen euskal komunitate batera igaro dela ondorioztatu da.

Laugarrenik, Internet bidezko euskal identitatearen eraikuntzan parte hartzen duten agenteak identifikatu eta gero, ezagutu da euskal identitatea ez dela eraikitzen soilik barne-harremanen bidez («Gu-Gu» eta «Gu-Haiek» deitu dena); izan ere, estatu espainolak, euskal identitatearen eraikuntza baldintzatzeaz gain, eraiki ere eraikitzen duela esan daiteke («Haiek-Gu» deitu dena). Azkenik, offline eta online espazioak uztartuz sortzen den territorio berri bat argitu da: Herriek Interneten garaian muga geografikoetatik gaindi osatzen duten territorioari *Herri digitala* izena eman zaio.

Bukatzeko, gizarte-ereduak jasandako moldaketek marko teorikoa egokitzea eskatzen duten bezala, tresneria metodologikoa moldatzea ere eskatzen dute. Hori dela-eta, doktorego-tesian teknika kuantitatibo zein kualitatiboak aintzat hartu badira ere, ikerketaren oinarria (auto) etnografia digitala izan da. Beraz, behaketa (ez) parte-hartzaileari esker, ikertzailearen eta ikertuaren arteko posizioak uztartu ahal izan dira eta, era horretan, euskal identitatea, euskal gizartea eta, oro ohar, egungo gizarte-eredua ulertzeko bideari ekin zaio.